

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUNA

Aurrekontuak

2016ko ekitaldian — kreditu-transferentzia egin eta konpromiso-kreditua sortuz— aurrekontu-aldaketak egiteko dosierrei behin betiko onespena ematea

3/2004 Foru Arauan xedatutakoaren ildotik, eta ez denez 2016ko ekitaldian aurrekontu-aldaketak egiteko dosierren hasierako onespeneraren kontra inongo erreklamazio edo oharpenik egin, behin betiko onetsita geratu dira ondoren adierazten diren aldaketak:

— 7 compro/16 dosierra, konpromiso-kreditua sortzeko, suhiltzaileen zerbitzurako auto-eskailera duen altuerako ibilgailua erosteko, 03.40 1361 624.01 aurrekontu-aplikazioan ("Auto-eskailera duen altuerako ibilgailua erostea").

2017an: 700.000,00 euro.

— 8 compro/16 dosierra, konpromiso-kreditua aldatzeko, Zabalganeko gizarte-etxerako ekipamendua erosteko, 18.20 3371 625.08 aurrekontu-aplikazioan ("Zabalganeko gizarte-etxeko ekipamendua").

2017. urtea, 1.760.360,00 euro

— 9 compro/2016 dosierra, konpromiso-kreditua sortzeko, garabia duen kamioi bat erosteko, 15.20.07 1711 624.02 aurrekontu-aplikazioan ("Garabia duen kamioi bat erostea").

2017an: 112.469,50 euro.

— 10 compro/2016 dosierra, konpromiso-kreditua sortzeko, makina birringailu bat erosteko, 15.20.07 1711 623.02 aurrekontu-aplikazioan ("Makina birringailu bat erostea").

2017an: 38.962,00 euro.

— Kreditu transferentziarako 44. zenbakiko dosierra, Gao Lacho Drom elkartearekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatzeko langileen gastuak sektoreko hitzarmenera egokitzeko, 3.000,00 euroko zenbatekoarekin.

— Kreditu-transferentziarako 47 zenbakiko dosierra, Arabako Abokatuen Elkargoarekin hitzarmena sinatzeko, adinekoei, zainzaileei eta adituei aholkularitza juridikoa eskaintzeko, eta adinekoentzako zentro soziokulturaletan hitzaldiak emateko proiekturako, 2.627,84 euroko zenbatekoarekin.

— Kreditu transferentziarako 48. zenbakiko dosierra, Gizarte Langintzako Eskolarekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatzeko, gizarte-zerbitzuen 40. urteurrena ospatzeko jardunaldirako, 12.000,00 euroko zenbatekoarekin.

— Kreditu transferentziarako 52. zenbakiko dosierra, Adsis Fundazioak, Caritasek eta prestakuntzarako zentroek osatutako taldearekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatzeko Hazia programarako, 40.000,00 euroko zenbatekoarekin.

— Kreditu transferentziarako 54. zenbakiko dosierra, Gasteiz On elkartearekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatzeko Ardoarabarako, 30.000,00 euroko zenbatekoarekin.

- Kreditu-transferentziarako 61. zenbakiko dosierra, Arabako Foru Aldundiarekiko hitzarmena zabaltzeko, 490,00 euroko zenbatekoarekin.
- Kreditu transferentziarako 62. zenbakiko dosierra, Arabako Diabetikoen Elkartearakiko hitzarmenean onartutako zenbatekoa zuzentzeko, 300,00 euroko zenbatekoarekin.
- Kreditu transferentziarako 63. zenbakiko dosierra, Jeiki/Hazgarri Fundazioarekiko hitzarmenean onartutako zenbatekoa zuzentzeko, 7,00 euroko zenbatekoarekin.
- Kreditu transferentziarako 64. zenbakiko dosierra, Hiesaren aurkako batzordearekiko hitzarmenean Gayen Artean programarako onartutako zenbatekoa zuzentzeko, 2.311,04 euroko zenbatekoarekin.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko azaroaren 30ean

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE